

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4560

EBAZPENA, 2018ko irailaren 6koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2018an eta 2019an egiteko diru-laguntzak.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko maiatzaren 3ko Aginduaren bidez (maiatzaren 22ko EHAA, 97. zk.), euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2018an eta 2019an egiteko diru-laguntzetarako deialdia arautu zen.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 8. artikulua araberera, 2018ko ekainaren 22an amaitu zen.

Aginduaren 13. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu ondoren eta eskabideak aztertu eta gero, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2018ko uztailaren 12an, eta horrekin batera, aginduaren 15. artikulua araberako balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 16. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Diru-laguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsoneri, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.– Ez onartzea III. eranskinean agertzen diren eskabideak, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Laugarrena.– Onuradunak diru-laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.– Diru-laguntzaren xede diren proiektuek 2018ko ekitaldian hasita egon edo hasi behar dute eta 2019ko urriaren 4a baino lehen amaitu. Gauzatze epea ezingo da atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.

Seigarrena.– Emandako diru-laguntzen ordainketa honela egingo da, aginduaren 19. artikuluan xedatutakoari jarraituz:

a) Lehenengo zatian, emandako diru-laguntzaren % 50 ordainduko da esleitzen den unean, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a, gastua justifikatu ondoren, diru-laguntzaren indarraldia amaitzean eta aurretik eskatutako dokumentazioa aurkeztuta egingo da.

2018ko irailaren 18a, asteartea

Zazpigarrena.– Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko eta likidazioa egiteko, aginduaren 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoa beteko da. Edozein kasutan, 2018ko urriaren 4a izango da diru-laguntza jaso duten proiektuen egiaztagiriak aurkezteko epearen azkeneko eguna.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jasotzen eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 6a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2018ko irailaren 18a, asteartea

I. ERANSKINA

Esp. zk.	Eskatzailea	NAN	Proiektua	Emandako diru-laguntza	2018 (% 50)	2019 (% 50)
002-KOI-2018	Alberdi Lonbide, Xabier	72443726M	Proyecto de investigación de la perduración de las ferrierías hidráulicas durante la baja Edad Media en el País Vasco	13.500,00	6.750,00	6.750,00
001-KOI-2018	Castilla Albisu, María	15981148N	Simón Berasaluce: arte y técnica, el color de la luz	6.000,00	3.000,00	3.000,00
003-KOI-2018	Eixezaarraga Ortuondo, Iosu	72490597W	De aldeas y solares. Investigación sobre el poblamiento medieval en el País Vasco atlántico para la definición de criterios para su protección	13.500,00	6.750,00	6.750,00
010-KOI-2018	Fernández Carbajal, José Ángel	45671633G	Proyecto de estudio histórico-arqueológico de las barriadas de caseríos en el País Vasco	13.500,00	6.750,00	6.750,00
009-KOI-2018	García Gómez, Ismael	44680157N	Patrimonio arquitectónico franciscano en Euskadi. Estudio evaluativo	13.500,00	6.750,00	6.750,00
013-KOI-2018	Martínez Matía, Ainara	30692414H	Cuestión de género. Aplicación de la metodología de género en la protección del Patrimonio Cultural	13.500,00	6.750,00	6.750,00
008-KOI-2018	Martínez Montecelo, Ángel	72448578G	Patrimonio Arqueológico forestal en los espacios naturales protegidos: un caso práctico en el Parque Natural de Aizkorri-Aratz	13.500,00	6.750,00	6.750,00
012-KOI-2018	Romano Vallejo, María	78883116Q	Metodología de protección para vías férreas de la CAPV	13.500,00	6.750,00	6.750,00
007-KOI-2018	Royo Ruiz, Marco Alfredo	14956860Y	Zallako atzoko eta gaurko Ondare Onomastikoa	13.500,00	6.750,00	6.750,00
005-KOI-2018	Sánchez López De La Fuente, Aitor	72720264Z	El "patrimonio olvidado". Investigación para la protección de los yacimientos prehistóricos al aire libre de Asparrena (Araba)	13.404,48	6.702,24	6.702,24
014-KOI-2018	Villaluenga Martínez, Aritza	45678410L	Identificación y protección de cavidades con indicios de ocupaciones arqueo-paleontológicas en el Territorio Histórico de Álava-Araba	13.492,00	6.746,00	6.746,00
			GUZTIRA	140.896,48	70.448,24	70.448,24

2018ko irailaren 18a, asteartea

II. ERANSKINA

UKATUTAKO DIRULAGUNTZA-ESKABIDEAK

Eskatzailea	NAN	Proiektua	Arrazoa
Legorburu Arzamendi, Miguel Ángel	15922409S	EAEko Erakunde publikoetako ondare numismatikoaren gaur egungo egoera eta aurrera begirako egokitze proposamen metodologikoa.	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa (Aginduaren 14.1 art.)

2018ko irailaren 18a, asteartea

III. ERANSKINA

Eskatzailea	NAN	Proiektua	Arrazoa
Echeverría Larrañaga, Martín	72513415G	Proyecto de investigación para la protección y puesta en valor de juego de bolos en el País Vasco a través del análisis y documentación de los bola-toki y sus tipologías arquitectónicas.	Ez du betetzen diru-laguntza izateko titulazio akademikoari dagokion baldintza (Aginduaren 3. eta 6.2. art.).